

bizirik behar genuen

Herri honetan bihotzaren atsedenak ez du apenas irauten. Edozein festaren biharamunak dakar notizirik tristeena. Telefonoaren soinuak lo zorroa hausten du. Lagunak festara deitzen ala neskak paseora? Bileraren bat akaso?

—Haizak txo! Tuteratik deitzen diat. ... Gladysi tiro bat jo diote.

—Zer?, ostia! Istilu handia izan al da?

—Ez istilu handirik ez duk izan. Tentsioa besterik ez grisak etorri direnean. Arratsaldean zertxobait. Derrepente etorri dira guardia zibilak, eta derrepente hi, derrepente izan da dena. Derrepente...

—Zauritu asko izan al da? Nola izan da dena? Haizak, zer moduz zegok Gladys?

—Gladys?... Gladys hila zegok... buruan jo dio tiroak.

—Hila!... hila?...

Gladys nire laguna hila. Orain dela ordu bete Gladys hil egin dute. Guardia zibilak hil du Gladys. Hila zegok. Hila dago. Ez al dut gehiago ikusiko Gladys? Ez, hila dagoelako ez dut gehiago ikusiko. Ezin da. Ezin dut gehiago ikusi Gladys. Ez. Ezin dut. Hila baitago. Hila!

Gladys!

Gladys gure laguna zen. Oso maita. Hauzoan oso ezaguna eta maitatua gainera. Ixilean eta bere lanari garrantzi handirik ematen ez dioten horietakoa. Bere buruaren aipamena inporta ez zitzaion neska, baina era berean exijentea, berarekin eta ingurukoekin. Gauzak oso landuak gustatzen zitzaizkiona. —Jo! nik perfekzionista bat zela esan nion behin.»

—«Nik beretaz esango nukeen gauzarik aipagarriena bere inkieta da. Beti bilaka, eta momentu bakoitzean pentsatzen zuenarekin konsekuente izatea». —«Bai, eta bere konpromisoa». —«Bai, jendearekiko hartzen zuen konpromisoa».

Neska patxaratsua itxuraz. Azken orduko detaileak ahaztu egiten zaizkien horietakoa. —«Eta ai! puntualitatea ere ez zuen batere atsegin.»



24 urte, eta informatika lizentziatura egin ondoren eta lanean zegoela ekoloji gaiak ikuiturik sakon aztertzen hasia. —«Lemoizko zentralean aurka egin zen kanpaina hartan pila bat txarla emanak zituen». Sakonketa horretarako kimikas ikasten hasia. Eta azken denbora honetan zalantzak, biologikas edo... hobeto etorriko omen zitzaion.

Bere aurpegi zuria eta betaurrekoen atzetik begirada bizia. Urrutira begiratzen zekiena. Lasaitasunean erradikala. Gauzen sustraletara iristen zekielako erradikala. Bere ahots ixil harekin ezer esatera ez zihoala zirudienean to! azterketa xamur eta sakona. —«Eta ilusioa». —«Bai, igande berean esaten zidan kontentutua zegoela oraindik ilusioa sentitzen zuelako».

Eta depronto errabia. Kriston errabia. Milaka gazte Tuteran, hauzotik ehunen bat. Etetik berrehun eta piko kilometrotara tiro bat, eta Gladys...

**Herri berdeago bat
nahi zenuen defendatu;
eguzkiarekiko harremanak
kantatu
beharrez aldarrikatu;
bere horretan
bizigoseak bazkatu,
bainan alferrik,
bere horrek azkenik
zaitu akatu.
«Landaretik lore,
loretik hazi;
hazitik fruitua
eta berriz hasi.»**

Aurreko egunean hirigintzari buruz gai bat zegoela eta, hauzoko kaletan mahaia jarri, eta firmak bil-tzen. Goizetik aurrekin inguru-giroari buruz egindako pinturak, gero bizikleten manifestapena.

Gladys langilea. Bere eguneroko lanetik aparte antinuklear komite-etakoa, ekoloji taldeen koordinaketakoa, hauzoko ingurugiro eta hirigintza komisiokoa. Gau eskolan eus-kara ikasten, graduado escolar-en klaseak ematen. —«Familiarekin egoteko denborarik arkitzen ez zuela ere askotan aitatzen zuen». —«Barnean oso etxeokoa zen gainera».

Denbora gutxiegi, akaso, dibertitzeko hartuak. Karnabaletan dibertitu zela gehien esaten zuen. —«Bai, pailasoz jantzita irten zen». —Zer pena egunero ezin horrela jantzi, zioen».

Eta lanak taldean egitea gustatzen zitzaion. Eta errabia ematen zion talde baten barnean batek edo bik egin behar ba zuten guztia. Eta bere ironia ziniko-beltza, momentu txarreneri buelta ematen zekiena. Eta..., hainbeste gauza!

Eta zer demontre!, betiko topiko izateak hau esatea merkeagotzen badu ere, onenak direla lehenen erortzen direnak esan behar. ... Eta zergatik? Aidios! eta zergatik?

Hik maite hituen landare eta lo-rek hazi daitezela eta beren ostotartean estutu hire hiltzailearen bika madarikatuak!, akatu arte! Loreak ximeldu dira oraintxe! Hire eguzkia malkotan ikusi dinat Donostiako hormetan. Negar malkoak ez lituzteke itoko hire heriotza lortu dutenen ezarriak. Goibel dago giroa.

Bai, eta multinazionalak izan dira, bai! Eta gobernua izan da, bai! Eta kapitalistak, noski!, eta mitraila-taren atzean zegoen guardia zibil gizarajoa, bai! Bai, bai!

Eta azkenean, ... bost karajo! eta Gladys hila. Ai!

Orain ezin ahaztu... Baina bizirik behar genuen.

EGIA HAUZOKO BERE LAGUNAK